

OSO JARRAIPEN ZABALA BIZKAIKO AUTOESKOLEN SEKTOREKO GREBAREN LEHEN EGUNEAN

**CCOO-IRAKASKUNTZAk eta ELAk mobilizazioekin
jarraitzeko deia egin dute helburuak lortzeko,
APAVIren gelditasunari erantzunez**

Bizkaiko autoeskolen sektoreko grebaren lehen egunak, ELAk (% 87,5) eta CCOOk (% 12,5) deituta, langileen oso babes zabala izan du, eta argi utzi du langileak nazkatuta daudela APAVI patronalaren immobilismoarekin.

Benetako aurrerapenik gabeko zazpi negoziazio-mahairen ondoren, ordezkaritza sindikalak uztailaren 8, 16 eta 21erako greba-egutegia aktibatzea erabaki du, APAVIk negoziatzeko duen borondate faltari erantzuteko. APAVIk ez du proposamenik aurkeztu sektorearen eskaera nagusiei erantzuteko: soldata RPIaren arabera eguneratzea, lan-osasunean hobekuntzak sustatzea eta lanaldia murriztea, batez ere irakasleentzat. Administrazioako langileen kasuan ere, proposatutako neurriak ez dira nahikoak, lan-karga handitzeari eta kontziliazio-premiei erantzun gabe.

Jardunaldia goizeko lehen orduan hasi da, informazio-kontzentrazio batekin, eta, horren ondorioz, manifestazio jendetsua egin da Bilbon, Casilda Iturrizar parketik gertu hasi eta patronalaren egoitzaraino. Ibilbidean zehar, plantillaren erosteko ahalmena bermatzea eta lanaldiaren murrizketan aurrera egitea eskatu da.

CCOOirakaskuntzak eta ELAk jarrera pasiboa alde batera uzteko eskatu diote APAVIri, eta benetako proposamenak mahai gainean jartzeko, borondate faltagatik blokeatutako negoziazioan aurrera egin ahal izateko. Langileek ozen eta argi hitz egin dute: aurrerapausorik gabe, greba gehiago izango dira.

CCOO-IRAKASKUNTZA, ELA

AMPLIO SEQUIMIENTO EN EL PRIMER DÍA DE HUELGA EN EL SECTOR DE AUTOESCUELAS DE BIZKAIA

CCOO-IRAKASKUNTZA y ELA llaman a continuar con las movilizaciones para alcanzar los objetivos ante la inacción de APAVI

El primer día de huelga en el sector de autoescuelas de Bizkaia, convocado por ELA (87,5%) y CCOO (12,5%), ha contado con un amplio respaldo de la plantilla, dejando claro el hartazgo de los trabajadores y trabajadoras ante el inmovilismo de la patronal APAVI.

Tras siete mesas de negociación sin avances reales, la representación sindical ha decidido activar un calendario de huelgas los días 8, 16 y 21 de julio, como respuesta a la falta de voluntad negociadora de APAVI, que no ha presentado propuestas con contenido suficiente para atender las principales demandas del sector: la actualización del salario según el IPC, mejoras en salud laboral y la reducción de la jornada laboral, especialmente para el personal docente. En el caso del personal administrativo, las medidas propuestas resultan también insuficientes, sin responder al aumento de la carga de trabajo ni a las necesidades de conciliación.

La jornada ha comenzado a primera hora de la mañana con una concentración informativa, que ha dado paso a una multitudinaria manifestación desde las inmediaciones del parque de Doña Casilda, en Bilbao, hasta la sede de la patronal. Durante el recorrido, se ha exigido garantizar el poder adquisitivo de la plantilla y avanzar en la reducción de la jornada laboral.

CCOOirakaskuntza y ELA exigen a APAVI que abandone su actitud pasiva y ponga sobre la mesa propuestas reales que permitan avanzar en una negociación bloqueada por su falta de voluntad. La plantilla ya ha hablado alto y claro: sin avances, habrá más huelga.

CCOO-IRAKASKUNTZA, ELA